

GUZTIOK BATERA



Nor gara?

Gizarte zibileko hainbat erakundek osatutako talde bat gara, eta **helburu komun** bat dugu guztiok: beste antolakunde batzuekin eta administrazio publikoekin **gizarte bidezkoago eta zuzenago baten alde lan egitea, ingurumena eta giza eskubideak errespetatuz**, bereziki emakumeak eta egoera ahulenean dauden pertsonak ardatz harturik, Euskadin eta Planeta osoan.

Gaur egun, hauek dira taldeko kideak: [AMUGE](#), [Euskadiko Gazteriaren Kontseilua \(EGK\)](#), [World Rural Forum-Munduko Landagunea](#), [Gehitu](#), [Emakumeak Aniztasunean](#), eta [UNESCO Etxea](#).

Zer nahi dugu?

Oraindik ere pertsona gehiegik bizi dituztebai desberdinkeria-egoerak eta bai beren eskubideak baliatzeko zailtasunak. Horien artean daude pobreenak, emakumeak, migratzaileak, indarkeria eta bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak...Politika publikoek **bereziki egoera ahulenean dauden talde edo kolektiboak aintzat hartzeko** egiten dugu lan, **haien eskaerak eta aldarrikapenak bultzatuz**.

Horretarako, erreferentziazat hartu dugu NBEren **Garapen Iraunkorreko 2030 Agenda**, eta bereziki "inor atzean ez uzteko" printzipioa. Pertsona guztiak erdigunean jartzea lortzen ez badugu, haien generoa, sexua, jatorria, adina eta abar albo batera utzita, ezinezkoa izango da gure eskaera betetzea: jasangarritasunerako gizarte-eraldaketa lortzea, alegia.

Nola egiten dugu lan?


Gizarte-eragileekin **elkarrizketan** jardunez eta **sarean lan eginez**; ekarpena eginez intersektorialitate, genero-berdintasunetik eta giza eskubideetatik; eta toki mailan ikuspegi globalarekin jardunez. Hori dela eta, **sakon ezagutu** nahi ditugu **egoera ahulenean dauden taldeak**, eta **indartu** ere egin nahi dugu, bai elkarte gisa eta bai eragile politiko aktiboak garen aldetik, gure ahots guztiak entzunak izan daitezten. Era berean, **euskal gizartean** eragingo dugu, eta bereziki, erabakiak hartzen dituztenengan, beren erantzukizunak bete ditzaten.

Nola egin dezakezu bat gurekin?

Gurekin bat egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta informazioa emango dizugu. Nekane Viota: n.viota@unescoetxea.org



Informazio gehiago



Laguntzen du:

